

EKIALDE HURBILEKO GATAZKA. Abdula printzearen proposamenak ideia berririk jasotzen ez duen arren, su-etena lortzeko eta segurtasunerako planteamenduetatik haratago, gatazkaren konponbide politiko orokorra berriz ezarri du agendan.

Palestinarrak eta israeldarrek begi onez hartu dute Saudi Arabiaren bake plana

Ameriketako Estatu Batuek eta Europako Batasunak berehala biltzeko eskatu diete Sharoni eta Arafati



ADEL HANA / AP

Haur palestinarrak, atzo, Israelgo Armadak joan zen astean Gazan suntsituriko Palestinako Irratiaren egoitzaren hondakinetan jolasten.

Erredakzioa | DONOSTIA

Israelgo Gobernuak zein PAN Palestinako Aginte Nazionalen ordezkariek begi onez hartu zuten atzo Saudi Arabiako printze Abdulak Ekialde Hurbileko gatazka konpontzeko proposaturiko egitasmoa. Herrialde arabiarrek Israel onartzea eta Tel Aviv 1967ko mugetara erretiratzea proposatu du, besteak beste, Abdulak.

«Gogo onez hartu behar dugu egitasmoa», esan zuen Shimon Peres Israelgo Defentsa ministroak, Europako Atzerri politikako buru Javier Solanarekin astlehenean eginiko bileraren ondoren. «Elementu berriak baditu, eta, beraz, ez da baztertzekoa, bultzatzekoa baizik», gaineratu zuen, Saudi Arabian *de facto* agintzen duen Abdula printzearen proposamenaz iritzia ematean. Israelgo Atzerri ministroak proposamenok «ga-

PRINTZEAREN IDEIAK | BAKE NEGOZIAZIOA

Herrialde arabiarrek Israel onartzea eta Tel Aviv 1967ko mugetara erretiratzea proposatu du Abdulak

rrantzi izugarria» zutela nabarmendu zuen atzo. Sharonen eta PANeko presidente Jasser Arafatek «aurrebaldintzarik gabeko bilera» egitearen alde azaldu zen Peres, AEB eta Europako Batasuneko ordezkariak bezala.

Israelgo lehen ministro Ariel Sharonen proposamenarekiko «interesa» agertu zuela adierazi zuen Solanak atzo, Tel Aviveko gobernuburuarekin izaniko bileratik irtetean.

Egitasmoa erabat sostengatzen zuela esan zuen Jasser Arafatek Solanarekin atzo egin zuen bileran. Hurrengo orduo-

Gatazkak «konponbide militarrik» ez duela esan du Jack Straw Erresuma Batuko Atzerri ministroak

tan bake prozesuan «aurrerapenak» izango zirela iragarri zuen atzo Nabil Abu Rudaina Arafaten aholkulariak.

Gai politikoak mahai gainean

Abdula printzearen proposamenak indar berria eman dio azken urtean lotan izan den Ekialde Hurbileko diplomaziari. Egitasmoak proposamen berririk jasotzen ez duen arren, su-etena lortzeko eta segurtasuna handitzeko planteamenduetatik haratago, gatazkaren konponbide politiko orokorra berriz ezarri du agendan.

Proposamena «lagungarritzat» jo zuen atzo AEB Ameriketako Estatu Batuetako presidente George W. Bushen Saudi Arabiako agintariarekin telefonoz izaniko elkarrizketan, Ari Fleischer Etxe Zuriko eleduak aditzera eman zuenez. Bushen ustez, Arafat eta Sharon berriz negoziatzen hastea ezinbestekoa zela esan zuen eleduak.

Jordania eta Egiptora egitekoa zuen bidaia bertan behera utzi eta egitasmoa zehaztasunez ezagutzeko Arabia Saudira gaur jotzea erabaki zuen atzo Javier Solanak. Bi aldeetan «erreakzio positiboak» aurkitu ondoren hartu zuen erabakia.

Ekialde Hurbileko gatazka Irlandakoarekin parekatu ondoren, «konponbide militarrik» ez zegoela esan zuen atzo Jack Straw Erresuma Batuko Atzerri ministroak *The Guardian* egunkarian plazaratutako artikulu batean.

BAKE EGITASMOA



HASAN HAMALI / AP

Abdula printzea.

Berrikuntzarik gabeko proposamen berria

Saudi Arabiako printze Abdulak proposatu eta NBEk eztabaidatuko duen planari, ideia berriek gabe, batez ere proposatzaileak eta une politikoak ematen diote indarra. NBEk aspaldi onarturiko ebazpenetan oinarrituta, honako sei puntuok jasotzen ditu.

INDARKERIA. Bi aldeei indarkeria ekintzak bertan behera uzteko eskatuko zaie.

GIBELATZEA. Israelgo Armadak palestinaren matxinada —*Intifada*— hasi aurreko posizioetara egingo luke atzera.

NORMALKUNTZA. Eskualdeko estatuen arteko harremanak normalduko lirateke. Israel ofizialki onartuko lukete herrialde arabiarrek.

ERRETIRATZEA. Israel Zisjordania, Gaza eta Ekialdeko Jerusalemdik erretiratuko litzateke.

KOKAGUNEA. Kolonoentzako bizilekuak eraikitzeari utziko liokete israeldarrek.

ESTATU PALESTINARRA. Palestinarentzat estatu bat sortuko litzateke.